



BI KANPORAKETA ASTEBURU HONETAN

Kluben arteko **NAZIONALAK II FASEa** hasiko du Idiazabalgo **IGARONDO** frontoian, **larunbata eta igandean, goizeko 11,00etan** jokatuko diren bi kanporaketekin. **Larunbatean** Doneztebeko **ERREKA** eta **TOLOSA** eta **igandean** Atarrabiako **PAZ DE ZIGANDA** eta Errenteriako **EPLÉ**. Bi egunetan kanporaketa gogorak eta ederrak ikustea espero dugu. Zumarragako **BELOKI** frontoian jokatuko diren **final-laurdenetara pasatzea da saria**.

Larunbateko kanporaketarako bi klubek alineazio hauek jartzea espero da.

4 1/2ko partiduan **TELLETXEA** Errekakoa eta **AITOR ALTUNA** Tolosakoa, biak aurrelariak. Nahiko teknika eta joku badute bata bestea nahasteko aurrekaldean. Telletxeak botera jokatzea gustoko du, Altuna berriz airearen bila joango da ahal duen bezain azkar. Partidu polita.

Banakako partidurako Errekatik **TABAR** beteranoa eta Tolosatik **ELOLA** gazte indartsua bere joku oldarkorrenekin zaharra menderatu nahian, baina Tabarrek nahiko esperientzia du gaztea indar gabetzeko. **Ikaragarrizko garrantzia duen puntua** aurrera egin nahi duen klubarentzat.

Parejetako azken partidurako Errekak **BARANDIARAN-GORRITI** jarriko ditu eta Tolosak bere betiko pareja **E.LABAKA-TELLETXEA**. Ez da beharrezko guk abisatzea Errekakoei, beraiek ere badakite partiu hau irabaztea oso zaila dela, aski ezaguna baita Tolosako bikotearen maila. Errekako bikotea gutxietsi gabe, hobe dute aurreko bi puntuak irabazi torneoan aurrera egin nahi baldin badute.

Beraz, **izugarri interesgarria larunbateko kanporaketa**.

Igande goizean, 11,00etan, **4 1/2ko** partidua emango dio hasera Atarrabiako **PAZ DE ZIGANDA** eta Errenteriako **EPLÉ** klub arteko kanporaketari. **REKALDE** jarriko dute naparrek eta **ADONIS** errenteriakoek. Biek tankera berdintsuan jokatzen dute, botera, bi paretak eta dejadak zabalean bilatuz eta pelota luze bi aldeetara mugituz. Adonis indartsuagoa da eta aurkaria indarrez gainditu nahiko du baina Rekaldek esperientzia eta kantxan kolokatuta egoten jakitea ditu bere alde.

Banaka hauek jokatuko dute: **VIDAN** nafarren aldetik eta **ARANGUREN** EPLEtik. Vidanek harritu egin gaitu torneo honetan izandako aktuazioekin, beti airez jokatzea bilatzen du aurkaria ito nahiean eta, baita ere, arriskuak hartuz jokatzea gustoko du. Aranguren bere lekua ondo gordetzen dakiena da eta joku lasaia gustatzen zaiona, pelota frotisetik urruti jarriz. Asmatu beharko du irabazi nahi badu.

Goizeko azken partiduan, **binakakoan**, **BARBAJERO-TELLETXEA** Paz de Zigandakoak, ofizio handiko bikotea, tantoak lantzen dituena erregalarik egin gabe. Aurkariak **TABERNA-ODRIOZOLA** EPLEkoak. Lan asko egin beharko dute eta tanto gutxi galdu nafarrei irabazi nahiz gero.

Kanporaketa interesgarria, bertaratzen diren pelotazaleei gustatuko zaiena dudarik gabe.

Bi goiz eder pasatzeko proposamena egiten dizuegu, pelota partidu interesgarriak ikusiaz, Idiazabal herriko frontoiara gerturatuz gero.



DOBLE JORNADA

La VI edición del **NACIONAL** de clubes afronta este fin de semana la **FASE 2**, con **doble jornada** en el frontón **IGARONDO** de Idiazabal, **ambas a las 11,00** de la mañana. El **sábado** será el turno del **ERREKA** de Doneztebe y del **TOLOSA**. El **domingo** serán **PAZ DE ZIGANDA** de Villava y **EPLE** de Errenteria. Ambas jornadas se presentan francamente apasionantes y la victoria **supone acceder a la fase cuartos** de final que se va a celebrar en el frontón **BELOKI** de Zumarraga, con todo lo que supone.

Para el **sábado** los clubes en disputa pondrán en liza, se espera, las siguientes alineaciones.

Para el primer partido, en el **4 1/2**, **ERREKA** presenta a **Telletxea** y **TOLOSA** a **Aitor Altuna**. Siendo ambos delanteros, intentarán enredar al adversario. Poseen la técnica y las cualidades suficientes para ejecutar cualquier jugada. Telletxea gusta más jugar a bote, sin embargo su adversario busca el aire a la primera ocasión. Un partido muy interesante entre dos jóvenes pelotaris.

Para el **mano a mano** será **Tabar** el representante del Erreka, siendo el pelotari de Bidania Elola el que defienda los intereses del Tolosa. Se enfrentan la veteranía y saber estar sobre la cancha de Tabar frente al ímpetu y fuerza juvenil de Elola, quien tiene elementos suficientes para desarmar al contrincante, pero la veteranía es un grado y Tabar sobre la cancha hace valer su veteranía. Punto que resultará imprescindible para los intereses de ambos clubes.

Para el tercero y último de la mañana del sábado el Erreka pondrá sobre la cancha a la pareja Barandiaran-Gorriti mientras el Tolosa tendrá como representantes a E. Labaka-Telletxea. Si Erreka depende de este punto para sus aspiraciones sabrá, sin necesidad de que le advirtamos, que es harto complicado y el más difícil de los enfrentamientos para sus intereses. La pareja de Tolosa es muy potente y solo ha sido batida en una ocasión en este torneo. Sin menospreciar en absoluto la calidad y los extraordinarios recursos de Barandiaran y Gorriti, sería mejor que para este tercer partido el Erreka tuviera los deberes hechos si quiere acceder a estar en Zumarraga.

Muy interesante jornada de pelota

Para el **domingo** se espera que los 2 clubes planteen el choque con los siguientes pelotaris.

Para el **primero de la mañana**, que da inicio **a las 11,00** horas, en el **4 1/2**, el club navarro **PAZ DE ZIGANDA** pondrá sobre la cancha a **Recalde**, siendo **Adonis** quien represente al club **EPLE** de Renteria. Ambos basan su juego a bote buscando las dejadas al ancho, los dos paredes o las aperturas a los ángulos. Adonis, entre otras virtudes, dispone del poderío suficiente en el golpeo como para desbordar. Recalde hará valer su veteranía y su saber estar sobre la cancha.

Para el **mano a mano** será **Vidan** quien defienda al Paz de Ziganda teniendo en frente como representante de Eple a **Aranguren**. El pelotari navarro siempre ha sorprendido en este torneo con sus actuaciones. Sin dejar botar la pelota posee un aire con cuyo ritmo atosiga por completo al contrario, además de una brillante técnica para la ejecución de jugadas difíciles. Aranguren en esta ocasión tendrá que sudar la camiseta, quizá más de la cuenta, si quiere ganar el punto para su club. Tiene argumentos para poder hacerlo si encuentra su sitio en la cancha e impone su juego tranquilo y pausado.

Para cerrar la mañana la **pareja** de Paz de Ziganda Barbajero-Telletxea tendrá en frente a Taberna-Odriozola de Eple. La pareja navarra posee mucho oficio, trabaja con ahínco todos y cada uno de los tantos y no regala ninguno. Los pelotaris de Eple deberán empeñarse de lo lindo y cometer muy pocos fallos pues de lo contrario quizá se les haga imposible ganar este punto.

Interesante enfrentamiento que seguro gusta a todos los aficionados que se acerquen al frontón de Idiazabal.